

Ez naiz belu jaio

A. Evtuchenko´na
Euskaratzailea: Igotz

Ezin-ikusiz ilten nago
eta ezin naiz nererik egon:
ez neban
anai arteko gerrarik egin,
ez neban
aberri gudua egin.
Eta, alan be,
ez naiz belu jaio.
Pozik asmatzen naiz gerra sagaratu bat
guzur eta sapokeri ororen aurka
jokatu aal dodanean.
Eta bidean topo dagidanean
era maitekordun etsai batekin,
ezin daiteke bake-itunbenik izan
gerra onetan.
Onetan burrukan egiten da
eta garaipena lortzen.
Au da,
nire anai arteko burruka
auxe da
nire aberri gudua.
Ez jat eder naro egotea, ain naro,
atrapario zaar bat iduri,
astun eta autsez betea,
atrapario itsusi ta zaarra iduri.
Or dator bat, arpegi zurbilla;
zetako burrukan egin,
zetako eztabaidan asi?
«Aldeztu genduan guk
sobietar aginpidea,
zergaitik
jarraitu bera aldezten?»
Baiña zuok aldeztu
sobietar aginpidea
gudariari dagokion buru-ukatzez
zaartzen dauan guztitik,
margo guztitako azal-uskeritik.
Galburu taupatsuen gaiñ makurtuak,
fabriketan kaltzairua urtzen,
kosmo lezara jauzi egiñez,
emon itzala sobietar aginteari!

Arriak baizen aierga ta ardura-bako,
erabagiak izenpetzen ebezala,
euren izenean
su-iskillatzen eben iraultza.
Loia zan jokoa,
nabarmena,
eta kondairan esku artzen asi zan
bearrezko eben norbait:
«beti esaneko» mutilla.
Ezingo duzu bera ezertan atzemon.
Malmutza da ta narea.
«Beti esaneko» mutilla

azal naiko bizkorrekoa dozu.
Itsaskor
baseliña iduri,
edozein tokitan
ondo ba'yatorko,
ondo ba'yatorko,
etsaitzat artzen zaitu.
Eurak,
mutil oneik jakituriz beteak,
eurok ziran gure ikurriñak
eroiazanak
euren esku loiakaz.
Arazotzen ziran,
baita izarditu be,
iraiñak bakarrik egiteko,
eta prestu bakar lez agertzen ziran
prestutasunaren aurka ziarduela.

Mayakovski dakart gogora,
nortzuk ziran oneik sumatu
eta jorratu zituna
narrazti azurbako lez,
zigor-azo zituan Mayakovski'k letxe.
Antolojiko olerkari bat dozu gaur.
Oroigailu bat be jaso dautsoe.
Baiña mutil on oneik
bai egin eutsoela oro neketsu!
Izardia atera oi eben
euren idazlanetan berau aitatzeko:
etzala esaten eben
langille xeen idazlea,
eta loi-zatarreriz eben estaltzen
azal-uts matxar zitalok.
Bizi zala ez eutsoen itxi
«Muga-txartelazko Bertsoak».
Baiña olerkaria beti gazte
guretzat kakots-artetu barik bizi da,
aundi ta guren
iraultza aiña,
eta, iraultza legez,
ezberekoi.
Betiren beti burukatuko
odol bakotxaren bulkadan,
eta guk, Mayakovski'tar biziz,
baituran iraunazten dogu aren buru-ukapena.
Nekazari baztangak joak,
mariñel edo gudari txotoz,
jarraitzen eutsoenean,
iraultza,
irabaziagatik ez egien ori.
Zeuri josirik egozan odolez,
prestutasunez
eta buru-ukapen eroapentsuz.
Baiña norbait, dagoneko,
kalkulu utsez zan tarteratzen.
Jente au,
egokiturik,
zerbitzari zan,
eta goraka ziarduan eztarria lertuz,

bitarte on batez
iruzur egiteko gertu.
Ori zan euren era!
Leun-leunak,
gozo-gozoak,
okerra ez eben gaitzesten,
baiña gero
alkate egin oi ziran,
ertzaiñak.
Ondo dazaut erraza au.
Ok-eginda nauka beronek.
Beti makurtuko dira
aizeak joten dauan aldarentza.
Likits eta itsaskor, arduraz aseak,
guzurra egotzi ez dabe
besterik egiten batzarretan.
Eta ez dautse ardurarik
aginpidea
sobietarra izan ala ez,
aginpidea baldin bada.
Baiña niretzat,
auxe da ain zuzen beiñena,
auxegaitik ain zuzen saiatu oi naiz.
Auxegaitik gertu nengoke ilteko be
birritan
eta irutan.
Dabiltzala, nai ba'dabe, otoruntz biran,
eta doazala ondarrera
trebetasunezko leiaketetan.
Zuk,
iraultza,
gudariak bear dozuz bakar-bakarrik,
eta ez iñolaz be barakarrorik.
Irripar adeitsua dau zerbitzariak:
dana eskiñiko dautzu.
Arima etoia dau morroiak:
dana salduko dautzu.
Gudariak
ez dakie ulea leguntzen.
Jente latz nunbait gudariak.
Ez dira etsitzen guzurraren aurrean.
Ez dabe urkoaren izenik loitzen.
Zuok latz eta mingarri zarienok!
Zuen zoria bai gatxa!
Laztasuna zenbat aldiz
ordaindu dozuen irain lotsagarriz!
Zenbat bidegabekeri eroan dozuen,
zenbat asmaturiko guzur baltz.
Zer izan zarie zuok? Poliziak?
Ez. Partisanuen ondoan joan zarie.
Eta, baztangak jandako baserritarren antzera
gudari edo mariñel-txanoz jantzita,
iraultzari jarraitu dautsazue,
eriorsa joan zarie buru-ukapenez.

Eta egiaren zerbitzari izan zarielako,
urte latzetan saldukerian ibilli etzarielako,
nik guztiok zaukedaz komunistatzat,
alderdiko gizonak eta alderdirik bage.